

ERABAKIA, BIZKAIKO CAMPUSEKO ETA KOMUNIKAZIOKO ERREKTORDEARENA, "THINK BIG 2026" ENPRESA IDEIEN LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEKOA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN BIZKAIKO CAMPUSEKO ZITEK PROGRAMAREN ESPARRUAN.

1. LEHIAKETAREN XEDEA

"Think Big 2026" enpresa ideien lehiaketa Bizkaiko Campuseko unibertsitarioen artean ekintzailtzaren kultura hedatzeko ekintzen esparruan kokatzen da.

Lehiaketak espirtu ekintzailea sustatu nahi du, ikasleak beren ezagutza eta esperientzia profesionalak aplikatu ditzaten motibatuz, komertzialki bideragarriak diren zerbitzu eta produktuak garatze aldera.

Zitek Programak behar diren bitartekoak jarriko ditu haien ideia martxan jartzea eta enpresa proiektu bihurtzea erabakitzen duten parte hartzaileen, sarituak izan edo ez izan, eskura.

Bestalde, lehiaketak komunikazio bide bat sortu nahi du ekintzailearekin, haren beharrei hobeto erantzuteko eta edozein ekimen edo negozio ideiatan laguntzeko.

2. PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte har dezakete negozio ideia bat eta jarduteko gaitasun osoa dituzten pertsona edo talde hauek:

- ✓ Gaur egun Bizkaiko Campuseko edozein fakultate edo eskolatan matrikulatutako ikasleak edo Bizkaiko egoiliar izanda UPV/EHUren beste campus batean matrikulatuta dauden ikasleak, masterretan eta doktoregoetan matrikulatutakoak barne. Horiekin batera, beste hauek ere aurkez daitezke: proiektu horiek egin, sustatu, lagundu edo dinamizatu dituzten hala zuzenean nola lehiaketaz informatuz eta jarraipena eginez irakasleak. Era berean, esku har dezakete paragrafo honetan aipatutako edozein ikasketa 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera bukatu duten pertsonak.

Ezin dute lehiaketa honetan parte hartu 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen eratuak enpresek, ezta lehiaketa honetan lehen hiru sarietako bat beste inoiz lortu duten proiektuek ere.

Talde edota pertsona bakoitzak nahi beste negozio ideia aurkez ditzake.

Saria lortzeko hautagai izateko, ez da ezinbestekoa ideia enpresa bihurtzea; nolana ere, epaimahaiak gehien baloratuko duen alderdietako bat izango da, hau da, jada eratu egotea edo eratzeko bidean egotea.

Ulertzen da ezen lehiakideek, lehiaketara aurkeztuta, oinarri hauek ontzat eman eta onartzen dituztela. Onarpen hori, era berean, zinpeko adierazpen batean jasoko da.

Hauek izango dira lehiaketa honetatik kanpo uzteko arrazoiak:

- Dokumentuak epe kanpo aurkeztea.
- Oinarriren bat ez betetzea.
- Datu faltuak aurkeztea.
- Epaimahaiaren erabakian eragiten saiatzea edozein bitartekoren bidez.

3. NEGOZIO IDEIAREN AURKEZPENA

Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak, beharrezko dokumentazioarekin batera, **2026ko maiatzaren 31ko 24:00ak arte** aurkez daitezke, Zitek-eko webgunean argitaratuko den formularioa betez: <https://zitek.eus/>.

Aurkeztutako proposamenak jaso behar dituen dokumentazioa eta edukia:

a) Izena emateko fitxa (ZITEK webguneko formularioa).

- Izena emateko fitxan adierazten den helbide elektronikoa izango da lehiaketa honetarako komunikabidea.
- Irakasle batek parte hartzen duen proiektuen kasuan, haren izen-abizenak ere jasoko dira. Gainera, Gradu Amaierako Lana (GRAL)bat den adierazi beharko da.
- Oinarriak onartu izanaren sinatutako zinpeko aitortpena.

b) Proiektuaren memoria.

Parte hartzaileen eskura jarriko da proiektuaren memoria eredu bat (I. eranskina). Ezinbestekoa izango da izangaiek atal bakoitzean adierazten den karaktere-luzerara egokitzea, epaimahaiak **ez baitu baloratuko** deialdi honetan ezarritako karaktere-muga gainditzen duen edukia.

Epaimahaiak, erabakia hartu baino lehen, proiektuko pertsona bati edo batzuei bere aurrean agertzeko eska diezaieke proiektua ahoz aurkezteko.

4. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Negozio ideiak baloratzeko, idatzizko aurkezpena eta, hala dagokionean, ahozkoa hartuko dira kontuan:

BALORATZEKO IRIZPIDEAK:	
1.- Ideiaren berritasuna eta originaltasuna	30 puntos
2.- Haren garapen-maila.	20 puntos
3.- Irtenbidea, lehiarako abantaila eta eskalagarritasun-maila. Bideragarritasun komertziala.	20 puntos
4.- Bideragarritasun teknikoa eta ekonomiko-finantzarioa.	20 puntos
5.- Gizartean eta ingurumenean duen eragina eta GJHekiko lotura.	10 puntos

5. EBAZTEKO PROZEDURA

Lehiaketa hau Bizkaiko Campuseko errektoreordeak ebatziko du, klausula honetan xedatutako epaimahaiak proposamena eginda. Erabaki hori <https://zitek.eus/> webgunean argitaratuko da eta izangaiei jakinaraziko zaie deialdi honen ondorioetarako komunikabide gisa emandako helbide elektronikoaren bidez.

Erabaki horren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, bat etorrita urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, dioenarekin.

Dena dela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke bi hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Berraztertze errekurtsua jarri bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri harik eta lehenaren berariazko edo ustezko ebazpena eman arte.

Hauek dira epaimahaia osatuko dutenak:

- ✓ UPV/EHUren ordezkari bat, Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko Errektoreordeak izendatua, idazkari jardungo duena.
- ✓ Bizkaiko BEAZen ordezkari bat.
- ✓ Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren ordezkari bat.

5.1. Epaimahaia 5 egun naturaleko epean eratu beharko da, lanak onartzeko epea amaitzen denetik kontatzen hasita, eta ahozko aurkezpena egin behar duten proiektuetarako deialdia egin beharko du 2026ko ekainaren 31a baino lehen.

Idazkariak epaimahaiaren bilera guztien aktak egingo ditu eta epaimahaikideek sinatu.

5.2. Epaimahaiaren egitekoak.

1. Planteatutako eskaerak berrikustea eta aurkeztutako proposamenen dokumentazioa zuzentzeko edo informazio osagarria aurkezteko eskatzea.
- 2.- Epaimahaiak, lehiakideek aurkeztutako dokumentazioa eta ideiak aztertu eta dagozkion gogoetak egin ondoren, erabaki proposamen bat egingo du, behar bezala arrazoituta eta proiektuei emandako puntuazioan oinarrituta.
- 3.- Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauetan arautu gabeko mota guztietako auziak interpretatzeko.
- 4.- Epaimahaiak campuseko errektoreordeari helaraziko dio bere erabaki proposamena, ahalik eta epe laburrenean eta, nolana ere, 2026ko uztailak 31 baino lehen.

6. SARIAK

Lau sari hauek emango dira:

- ✓ **Lehen saria**, 3.000 €-koa
- ✓ **Bigarren saria**, 2.000 €-koa.

- ✓ **Bi hirugarren sari**, 1.000 €-koak (horietako bat GRAL onenarentzat izango da, betiere 1. edo 2. saria jaso ez badu).

Epaimahaiak sari horiek proiektu baten baino gehiagoren artean **banatzeko aukera** izango du, baita **500 euroko** gehienez **3 accesit** ematekoa ere.

Gainera, pertsona edo talde irabazleek, ideia martxan jartzea erabakiz gero, prestakuntza, aholkularitza eta kokapen fisikoa jaso ditzakete ZITEK Programako enpresa zentroetan, beren negozio plana prestatzeko eta beren enpresa jarduerak abian jartzeko. Gainerako parte hartzaileek ere, nahiz eta beren ideia saritua ez izan, aukera horiek izango dituzte, enpresa bat eratu nahi izanez gero.

Sarietako batzuk hutsik laga daitezke, negozio ideiek ez badute, epaimahaiaren iritziz, gutxieneko kalitate eta originaltasun mailarik lortzen.

Sariak eskuratu ahal izateko, gutxienez 65 lortu beharko dituzte proiektuek 100 puntutik.

Emaitzak sariak banatzeko ekitaldian jakinaraziko dira. Ekitaldi hori UPV/EHUko guneren batean antolatuko da, eta parte hartzaileei behar besteko aurrerapenez jakinaraziko zaie horren data eta lekua, <https://zitek.eus/> webgunean, eta Zitek programaren sare sozialetan.

7. PARTE HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

- ✓ Lehiaketaren oinarriak onartzea
- ✓ Negozio ideia adierazitako moduan entregatzea
- ✓ Datuen zehaztasuna bermatzea

8. ANTOLATZAILEEN BETEBEHARRAK

Antolatzaileek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- ✓ Doako prestakuntza ematea beren ideia enpresa bihurtu nahi duten parte hartzaile guztiei, enpresa plana garatzeko behar dituzten ezagutzak bereganatu ditzaten, martxan jartzeko eta dirulaguntzak eta finantzaketa bilatzeko aholkularitza ematea eta lokal bat lortzea Bizkaiko Campuseko enpresen mintegietako batean
- ✓ Parte hartzaileek aurkeztutako proiektuen pribatutasunari eustea

9. KONFIDENTZIALTASUNARI BURUZKO AKORDIOA

Aurkeztutako proiektuen pribatutasunari eusteari dagokionez, lehiaketako epaimahaiak eta proiektuen berri eduki dezaketen pertsonak honelako tratamendua emango diote lehiakideek aurkeztutako informazioari:

- ✓ Proiektuaren izenburua, lehiaketan parte hartzeko entregatutako dokumentuan agertzen dena, publikoa izango da eta horren berri eman daiteke.
- ✓ Emandako gainerako informazioa proiektuak ebaluatzeko bakarrik erabil daiteke.
- ✓ Emandako informazioa ez zaie inola ere pertsona edo erakunde publiko edo pribatuei transmitituko edo jakinaraziko, egileen baimen eta adostasunik gabe.

- ✓ Lehiakideek emaniko informaziotik abiatuta sortutako edozein dokumenturi ere erabateko pribatutasunaren printzipioa aplikatuko zaio.
- ✓ Lehiaketak irauten duen bitartean, eta geroago ere bai, argitara emango dira soil-soilik proiektuaren izenburua eta xehetasunak, baldin eta egileek beharrezkotzat jotzen badituzte ospe publikoa lortzeko.

10. ZIURTAPENA

Antolatzaileek egindako ziurtagiri bat jasoko dute proiektu irabazlearen titularrek, irabazleak direla eta saria adjudikatu zaiela bermatuko duena.

11. ZABALKUNDEA

Deialdi hau Bizkaiko Campuseko iragarki oholean eta UPV/EHUren iragarki ohol korporatiboan (ehutaula-Bizkaiko Campusa) argitaratuko da eta webgune honetan egongo da eskuragarri: <https://zitek.eus/>.

Deialdi honetako gainerako egintzak eta komunikazioak webgune honetan argitaratuko dira: <https://zitek.eus/>

12. ERREKURTSOA

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta haren aurka berraztertze errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak zehaztutakoaren arabera.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita. Berraztertze errekurtsua jarri bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri harik eta lehenaren berariazko edo ustezko ebazpena eman arte.

Baldin eta erabaki hau argitaratzen denetik sei hilabetera webgunean inolako esleipen erabakirik argitaratu ez bada, interesdunek ezetsizat jo dezakete beren eskaera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorrira.

Leioan sinatua, sinadura elektronikoaren datan

Estitxu Garai Artetxe

Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko Errektoreordea

THINK BIG 2026

Enpresa Ideien Lehiaketa

I. Eranskina - MEMORIA EREDUA:

A) PROIEKTUAREN AURKEZPENA. (Gehienez 2 orrialde)

- 1. Proiektuaren izena:**
- 2. Talde sustatzailearen kideak.**
- 3. Ideia deskribatzea ahalik eta erarik zehatzenean, eta proiektua laburbiltzen duen.**
- 4. Eslogana edo leloa (15 hitz baino gutxiagokoa).**
- 5. Noiz eta nola sortu zen ideia?**
- 6. Zein da proiektuaren garapen maila? Zein fasetan dago?**

B) JARDUERAREN DESKRIBAPENA. (Gehienez 2 orrialde)

- 1. Eskaini beharreko produktua edo zerbitzua definitzea, ezaugarri teknikoak adierazita, eta izaera berritzailea nabarmenduta.**
- 2. Produktuak edo zerbitzuak zein premiari erantzuten dion edo zein arazo konpontzen duen. Zehaztu zer lehia abantaila dituen merkatuko gainerako aukeren aldean.**
- 3. Gako aliatu eta baliabideak. Zehaztu balizko hornitzaileak, azpikontratazioko premiak eta lehengaien edo hornigaien kostuen zerrenda.**
- 4. Produktuak edo zerbitzuak izango duen bilakaera aurreikustea.**

C) MERKATUAREN ALDERDIAK. (Gehienez 2 orrialde)

- 1. Helburuko merkatua edo sektorea.** Zehaztu zein merkatu esparrutan sartu nahi den (tokikoa, eskualdekoa, lurraldekoa, nazio mailakoa edo nazioartekoa), eta zergatik. Balizko egungo merkatua eta aurreikusitako etorkizuneko bilakaera.
- 2. Balizko bezeroa definitzea.** Azaldu zein dituzun bezero eta nola eta zenbatean ordainduko duten zure konponbidea.
- 3. Zehaztu zure lehiakide nagusiak** edo ordezeko produktuak, eta zer-nola lortuko duzun zure proiektua haienarengandik bereiztea. Zure iritzian, zer abantaila duzu lehiakideen aldean?
- 4. Komunikatzeko eta bezeroak erakartzeko estrategia.** Zein izango da komunikatzeko estrategia, eta zein helburu izango ditu? Hazteko estrategia.

D) BALIABIDE MATERIAL ETA TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK. (Gehienez 2 orrialde)

- 1. Instalazioak eta ekipamendua:** kokapena, tamaina, banaketa, makineria eta dagozkien kostuak.
- 2. Enpresaren organigramaren diseinua** eta bete beharreko **lanpostuen aurreikuspena**, langileen profila (prestakuntza maila eta esperientzia).

E) EKONOMIA ETA FINANTZA ALDERDIAK

- 1. Inbertsio plana** eta horren finantzaketa idatziz zehaztea.
- 2. Lehen bi urtetako galdu-irabazien kontuaren aurreikuspena** egitea.
